

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 17,4 milioiko gastua onartu du Nafarroako errepideetan uholdeek sortutako kalteak konpontzeko

Herrilanak 153 gertakari hauteman ditu sareko azpiegituretan eta bidezoruetan izan diren kalte garrantzitsuengatik

Miércoles, 19 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran 17,4 milioi euroko gastua onartu du Foru Komunitateko errepide-sarean uholdeek eragindako kalteak konpontzeko.

Kopuru hori erabiliko da lur-askatzeek eta luiziek kaltetutako azpiegiturek konpontzeko (8,5 milioi euro) eta kaltetutako 46 errepideetako bidezoruetan izandako kalte garrantzitsuak konpontzeko (8,9 milioi euro). Foru Administrazioaren historian errepide-sarean halako kalte handiei aurre egin behar dien lehen aldia da denbora berean eta bereziki Komunitateko erdialdeko eta iparraldeko zonaldeetako hainbat puntutan banatuta, Herrilanen Kontserbazio Zerbitzuak iragan maiatzaren 15ean egindako txostenaren arabera.

Izandako kalteak honako errepide hauetako kontserbazio-barruti edo -eremuei dagozkie, ordena horretan: Irurtzun (3,69 milioi), Lizarra (3,1 milioi), Tafalla (2,96), Iruña (2,62), Mugairi (2,57), Agoitz (2,29) eta Tutera (107.000 euro).

Nafarroako Gobernuak gastu hori onartu du Gobernu zentralak lege-dekretu bidez presta ditzakeen laguntzei kalterik egin gabe, halako hondamendi-egoeretan erabiltzen den mekanismoa betez, [Nafarroako Gobernuak eskatu zuen moduan](#) iragan maiatzaren 22ko akordio batean eta Barcina Lehendakariak helarazi ziena Barne ministro Jorge Fernández Díaz-i eta Nekazaritzako ministro Miguel Arias Cañete-ri.

Iragan urtarrilean, otsailean eta martxoan Nafarroan izandako prezipitazioek marka historiko guztiak gainditu dituzte; Iruñean 568 metro koadro baino gehiago, eta marka hori Komunitateko beste eskualde batzuetara zabal daiteke, hau da, iaz aldi berean izan ziren prezipitazioen hirukoitza. Gehiegizko ur horrek natura-ingurune guztian lur-askatzeak eta luiziak eragin ditu, bai eta intentsitate txikiko mugimendu sismiko batzuk, errepide-sareko puntu askori eragin dietenak.